

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure enpresa aurrera ateratzeko ezinbestekoak dira bezeroak. Atal honetan, gure bezero potentziala zein den eta beraien ezaugarriak aipatuko ditugu, hau da, gure jomuga izango diren bezeroen definizioa emango dugu.

Hasteko, gure produktuaren bidez, ingurumena zaindu daiteke eta ur-kontsumoa murriztu. Horregatik, helburu hau duten jendearentzat dago zuzenduta ideia hau. Hau esanda, uraren gehiegizko erabilera murriztu nahi dutenentzat produktu bikaina izan daiteke. Gaur egun, klima aldaketaren ondorioz, jende asko protestan ari da. Pertsona talde hori ekologista bezala ezagutu dezakegu. Ekologistek gure lana baloratuko dutela uste dugu. Hori dela eta, gure planeta babestu nahi dutenentzat, gure produktua erabiltzea lehenengo pausu garrantzitsu bat izango zen klima aldaketa gelditu ahal izateko.

Gure produktua inbertsio handia izan daiteke. Nahiz eta momentuan diru kantitate handia gastatu, gerora ur faktura baxuagoa izango denez, diru guztia berreskuratuko litzateke. Beraz, egonkortasun ekonomikoa ez zen gure produktua ez erosteko arrazoi bat izango, dirua aurrezteka baita produktuaren helburua. Ur faktura baxuagoa izango da erabilera egoki bat eginez gero, hau da, gure helburua ur kontsumo egoki bat egitea da. Horregatik, ur asko gastatzera ohituta egonda, gure produktuarekin kontsumo arduratsu bat egitea lortzen da eta faktura hain handia ez izatea. Hau guztia esan ondoren, aurreztaileak ere gure bezero izan daitezkeela esan dezakegu.

Horrez gain, gure bezeroen beste ezaugarri bat adin tartea da. Hainbat faktore baloratu ondoren, gure bezeroen adin tartea 30 eta 50 urteen artekoa dela uste dugu. Izan ere, adin hauetako jende gehiena oso aurreztailea da, eta ez hori bakarrik, batzuek pisu bat erosi berri izaten dute. Orduan, edozein modutara aurrezten saiatzen dira. Bestalde, pixkat zaharragoak direnek eta dagoeneko etxea erosita dutenek ere faktura gutxitzeko nahia dutela deritzogu. Horrez aparte, adin tarte honen barruan dagoen jendea kontziente da klima aldaketaz, eta horrelako produktu berriak eta ingurumenari laguntzen diotenak erakargarriak iruditzen zaizkie.



Orokorrean, edozein pertsonak erosi dezake produktu hau, lan egonkor bat edukiz gero. Hala ere, enpresa guztiek bezala, gure proposamena bezero talde jakin bati bideratuta dago.

Argi utzi nahi dugu produktua erosterako garaian baldintza batzuk daudela kokapen geografikoari erreferentzia egiten diotenak. Lehenik eta behin, produktua gure webgunean erosi nahi izanez gero,

bizitokia Espainian eduki behar du bezeroak, banaketa estatu mailan soilik eskaintzen dugulako. Horrez gain, produktua IKEA bidez erosteko aukera ere badago. IKEA eskuragarri dagoen herrialdeetan erosi ahal izango da, beraiek banaketa herrialde guzti horietan eskuragarri dutelako. Baina aipatu beharra dugu, IKEA bidez produktua ezin dela indibidualki erosi. Dutxa batekin batera bakarrik eskuratu daiteke, eta oso garrantzitsua da gure bezeroak horretaz kontziente izatea.